

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

Mugikortasun iraunkorraren Astea



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3, 20159 ZIZURKIL • 943 692495

Iraila 2008 62. zenbakia UDA



Informazio gehiago
Aurrera Plazako
Udal Bulegoetan.
943 692495



Arantzazuko Amaren Jaiak: irailaren 5-6-7-9-12-13

Kirola

08-9-14 AUTOEN ZIZURKILGO II. SLALOMA 11'00etan Pasusetik Asteasura doan bidean.

28-9-08 ZIZURKILGO VII. ZALDI LASTERKETA.



Mugikortasun iraunkorraren astea:

08-09-22 BIZIKLETEN TXEKEOAK DOAN: 17'00etan Pedro M^a Otaño Ikastetxean, Ekar ezazu zure bizikleta!

08-09-24 BIZIKLETEN TXEKEOAK DOAN: 17'00etan Pásus Plazan.

08-09-27 BIGARREN ESKUKO MATERIALAREN MERKATUA Villabonako Berdura Plazan 10'00etatik 13'30era. Bizikletak eta mugikortasunarekin zer ikusia duten materialak Udaletxea eta Udal Bulegoetan bilduko dira (irailaren 15etik 24ra). Jabe bakoitzak salgai jartzen duen materialaren prezioa jarri beharko du.

08-09-28 BIZIKLETA BIRA ZIZURKILDIK ASTEASURA BIDE GORRI BERRITIK: 11'00etan Pásus Plazan irteera emango zaio, 11'30ean Asteasuko Kiroledegian HAMAIKETAKOA, 12'30ean Zizurkilera buelta eta 13'00etan Pásus Plazan amaituko da bira. KASKOA eramateaz ez ahaztu!

Astean zehar:

- **BIDE HEZKUNTZA** lantzeko antzerkiak ikastetxeetan.
 - **ESKOLARA OINEZ**. Lehen Hezkuntzako guraso eta irakasleentzat hitzaldia ikastetxeetan.
- 2008-09-29tik urriaren 2ra: •**BIZIKLETAN IBILTZEN IKASTEKO HELDUENTZAKO IKASTAROA**. Izen emateak irailaren 16tik 24ra, 656728085 telefonoan. Prezioa: 35€ /pertsona. Lekua zehazteke.
- Partekatu ibilgailua! www.compartir.org**

“Zizurkilen Barrena” Beka

Zizurkilgo Udalak “Zizurkilen Barrena” Beka deitu du, ZIZURKILGO EUSKARA JASO ETA IKERTZEKO. Lehengo hizkuntza-ondarea eta ondare horri dagokion etnografi arloa batera jaso eta datozen belaunaldientzako ispilu eta erreferentzia izango den azterlan bat herritarren eta euskaldun guztien esku jartzea du helburu.

Proiektua eta interesdunaren datuak urriaren 24a baino lehenago aurkeztu beharko dira eta lana egiteko urtebeteko epea izango da. Informazio gehiago eta oinarriak: Zizurkilgo Udal Bulegoak, 943-692495.

Ikastaroak

- Ikasturtea urriko lehenengo astean hasiko da eta ekainaren erdi arte iraungo du.
- Matrikula epea: irailaren 10etik 25 arte.
- Izen emateak Zizurkilgo Aurrera Plazako Udal Bulegoetan, 943-692495 telefonoa. Izen emateko momentuan ikastaroaren ordainketa egin beharko da edo Udaleko kontu korrantean ordainketa egin izanaren ziurtagiria ekarri beharko da eta izen emate orria betetzea derrigorrezkoa.
- Ikastaroetako bajak urriaren 24a baino lehenago soilik onartuko dira eta idatziz eskatu beharko dira.

ZIZURKILGO ATXULONDO KULTUR ETXEA

HAURRENTZAT EKINTZAK: • **MARRAZKETA:** Astelehenetan 18'00etatik 19'00etara (haur askok izen ematen badute bi talde osatuko dira: 17'15etik 18'15era eta 18'15etik 19'15era). 25 euro. • **EUSKAL DANTZA:** Asteazkenetan 17'15etik 18'15era. 45 euro. • **DANTZA MODERNOA:** Asteartetan 18'15etik 19'15era (haur askok izen ematen badute bi talde osatuko dira: bata asteartetan eta bestea ostegunetan). 45 euro. • **EKINTZAK:** • **ESKULANAK:** Asteartetan 18'00etatik 20'00etara. 65 euro. • **PATCHWORK:** Asteazkenetan 18'00etatik 20'00etara. 65 euro. • **YOGA:** Astelehen eta asteazkenetan 18'30etik 20'00etara. 100 euro. • **PILATES:** Astearte eta ostegunetan 19'30etik 20'30era. 120 euro. • **JUBILATUENTZAT EKINTZAK:** Izen emate eta prezioak ELIZPE JUBILATU ELKARTEAN: • **GIMNASIA:** Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10'00etatik 11'00etara. • **ESKULANAK:** Ostegunetan 16'00etatik 18'00etara. • **YOGA:** Ostegunetan 11'00etatik 12'30etara.

ZIZURKILGO IRIARTE KULTUR ETXEA

HAURRENTZAT EKINTZAK: • **ANTZERKIA:** Ostegunetan 17'00etatik 18'00etara (txikiak) eta 18'00etatik 19'00etara (handiak). 25 euro. • **BERTSOLARITZA:** Naroa Gerestak eskainiko du. Izen emateak San Millan eskola bidez egingo dira. Prezioa: 35 euro. • **EKINTZAK:** • **ESKULANAK:** Ostiraletan 15'00etatik 17'00etara. 65 euro. • **AEROBIC:** Astelehen eta asteazkenetan 15'00etatik 16'00etara. 90 euro.

IKASTARO MOTZAK

- **AUTOMAKILAIA ETA ESKU ETA OIN ESTETIKA:** Ostegunetan, urriaren 16tik azaroaren 20ra, 19'00etatik 21'00etara. 35 euro.
- **UKENDUAK:** Intsusa, kalendula, berbena, pasmo belarra, aloe bera, e.a. bezalako belarrekin ukenduak egiten ikas ezazu. Urriko asteazkenetan (urriaren 8an hasita) 15'30etik 18'00etara Urkamendi Elkartean. 30 euro.

LOATZO MUSIKA ESKOLA 943-691857

EUSKARA IKASTAROAK:

- **ATZERRITARRENTZAT IKASTAROAK:** Atzerritarrek euskararekin lehenengo hartu-emana izan dezaten antolatzen dira 60 orduko ikastaro hauek. Prezioa: 10 euro. Izen emateak: irailaren 8tik 26ra Zizurkilgo Udal Bulegoetan (943-692495).
- **EUSKARA IKASTAROAK:** Zizurkil eta Villabonako Udalek antolatutako, herrian bertan euskara ikasteko taldeak sortuko dira. Izen emateak: irailaren 8tik 26ra Zizurkilgo Udal Bulegoetan (943-692495).
- **ALFABETATZE IKASTAROA:** Iriarte Etxean eskainiko da asteazkenetan 19'00etatik 20'30era. Prezioa: 60 euro.